



## Poetikak & Poemak Heredia, Meabe, Sarrionandia, Suarez eta Uribe

Ez dut bi bider pentsatu behar: Sarrionandia da liburu honetan altuenik hegan egitea lortzen duena. “Garaizarkoa” poema bikaina da... Gero eta garbiago daukat euskal literaturak eman digun munstro literario baten aurrean gaudela eta unibertsaltasun handiko proiektzioa daukala. Berataz ez dut beste ezer esango, soil-soilik ezen, liburu honetarako, maila handiko *teloneroak* bilatu dizkiotela: Heredia, Meabe, Castillo Suárez eta Kirme Uribe.

Haietako bakoitzak poema gutxi batzuk eta berauentzako sarrera txiki bat aurkezten ditu. Gehien gustatu zaidan sarrera Herediarena izan da, aurkeztu dituen poemekin guztiz bat dator eta. Uribe eta Suárezena ere ondo daude, sarrerak euren poemaren arabera dira eta modu sotil, dotore eta benazko batez aurkezten dituzte.

Meaberen sarrerak arreta erakarri dit, oso “jasoa” baita. Baina poemak irakurtzen hasi naizenean, “jaisten” hasi naizelako sentsazioa izan dut, eta, ez dakit, baina sarrera batek ez luke edukia bera gaindutu behar; oso sarrera intelektuala zela iruditu zait, “unibertsitateko tesi bat” balitz bezala. Dena den, poemek ez dute izaera intelektual hori (zorionez). Oro har, gustatu egin zaizkit; hunkitzea eta narratzea dute helburu; tragikoak dira. Ondo planteatuta dagoen poema batek (“Gelako besaulkia”) arreta erakarri dit berriro; ondo planteatuta dago, bai, baina “sentimenduak kategorizatze” batez errematatzen du. Uf, ez ditut gogoko “purrustada” intelektual horiek. Zer da “sentimenduak kategorizatzea” hori?. Psikologia-ikasketak egin behar al ditut poema ulertzeko ala zer? Mota horretako kultismoek mesfidantza eragiten didate. Horiek erabiltzen dituenak –pentsatzen dut– bere burua horien atzean ezkutatu nahi du. Garen bezala erakutsi behar dugu nor garen, geure biluztasun guztiarekin.

Sarrionandiak ez du hitzurrerik, edo hobeto esanda, Sarrionandiaren beraren literatur lanetatik ateratako pasarteak erabili dituzte hitzaurre modura. Baina ez da benetako hitzaurrea. Beraz, hitzaurre horri buruz ez dut ezer esango hitzurrerik ez dagoelako..

Castillo Suárezek erakartzen nau. Duela hilabete batzuk ezagutu nuen, “Spam Poemak” eta “Bala hutsak” poema-liburuak lagun... Inpresio oso ona eragin zidan. Baina ez dut hartaz gogoetarik egin. Ez dakit zehatz-mehatz zergatik gustatzen zaidan. Lantxo hori egiteko daukat oraindik. Badakit haren poesia oso pertsonala egin zaidala, begirada eta estilo oso originala dakartza berekin; batzuetan poemek deseroso sentiarazten naute (baina gehiago arlo pertsonal batean arlo literario batean baino; probokazioa hark berak bilatzen duela uste dut).

Eta azkenik, Uriberen poemak delikatuak eta irakurlea hunkitzeko modukoak zirela iruditu zait. Oso politak.

Liburu honek abiapuntu ona eskaintzen du euskal literaturako bost poeta garaikide bikain ezagutzeko.